

**Gu langile euskaldunak gara.**



**Proletariok ez gara liburu teorikoetan agertzen diren paperezko abstrakzio batzuk. Odol, hezur eta haragizkoak gara. Badugu sorterrria, familia, erroak, geure hizkuntza eta kultura, gure nazioa. Gure kasuan, euskaldunak izaki, gure nazioa, Euskal Herria edota, nahiago baduzu, Nafarroa, konkistatuta, kolonizatuta, militarki okupatua, zatituta eta zapalduta dago. Gure hizkuntza, Euskara, hilzorian, Parisen eta Madrilen planifikatutako etnozidio sistematiko baten bidez, Ipar Euskal Herrian, bereziki.**

**Honen ondorioz, langile euskaldunoi ez digu balio Marxen dialektika materialista zehatz eta konkretua oraindik ulertu ez duten teoriko ustez sakonek asmatu duten kosmopolitismo anazional horrek. Euskal Herriaren, Nafarroaren Independentzia eta Berreraikuntza Nazionala argi eta garbi eskatzen ez duten teorizazio abstraktu horiek.**

**Guk nahi dugun Iraultza Sozialista biziki konkretua da, lurralde, nazio eta Langile Klase zehatz batean errotua eta kokatua. Gurea Euskal Iraultza Sozialista da. Independentista eta internazionalista aldi berean. Zeren bi kontzeptu horiek ez baitira kontraesankorrrak, elkarren osagarriak baizik. Etorkizuneko Nafarroako Euskal Errepublika Sozialista gogo onez eta borondate handiz integratuko da mundu mailan, edota Europa mailan bederen, sortuko dugun Errepublika Sozialisten Batasunean, libre eta burujabe, elkartasunez jokatzeko munduko neba-arreba proletario guztiekin.**

**Guk ez dizugu esango non antolatu behar zaren eta nola borrokatu behar duzun. Hori zure aukera da, Zuk zeuk ikus ezazu. Gurekin ados bazaude, zatoz!**



**HERRITAR BATASUNA**